

- **Kirola:** Erregionalak igoera jokatuko du zapatuan Donostian
- **Kultura:** Erromerixa Eguna eta Ezoziko Jaiak datorren asteburuan

soraluzeko hamabostekaria **200.** alea
2009ko ekainaren 5ean

@ pil-pilean



Gazte lokalen ugaritzea



Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmologi Klinika

Plaza Barria, 2 - 2º - Tfnoa.: 943 201 844 - EIBAR
www.clinicarecalde.com

aldaketa

POLITIKO ETA SOZIALAREN ALDE

Por el cambio **POLÍTICO Y SOCIAL**



vota
bozkatu

www.iniciativainternacionalista.org



niziatiba

INTERNACIONALISTA





ARRATE GISASOLA



OINATZE SILBETI

IZAN DAITTEZEN

Aupa Oinatze!!! Nahi beste asti edo denpora euki dot Pil-pileaneko tarte honetan idatzi aurretik gaixa pentsatzeko, baiña ez, azken momenturarte ez dot aukeratu.

Horrek, ze pentsaua emon eta horren gaineko gogoetatxo bat egittera eraman nau, beste barik, ezer asmatu bihar ez dotela kontutan eukitta.

Idatzia gustoko euki dot beti, eta afizinuari tartetxua eskaintzeko aukera aproposa pentsatzen jata aldizkarixak eskaintzen deskun hau. Baiña bizitzan sarri gertatzen jakun edo jatan moduan gertau jata oiñguan; disfratau barik, inertziaz, gustokua izan bihar zana nekesa izatera pasatzeraino, denporian esklabu.

Halan da be, idatzixa amaittu aurretik, denpora nere alde jarriko dot, gero egitteko dakatena ahaztu eta nabilenakin gozatzeko. Nere orduak ez dabe hirurogei minutu eukiko gaurkuan.

Dihardudanakin gozatzeko denporia hartu nahi neuke, robotika danak albo batera lagata, egunak ez daittezen egutegiko numero hutsak izan. Izan daittezen negu, udazken, udabarri edo uda. Izan daittezen zuri, baltz edo koloretakuak, izan daittezen!!

Denporiak emon deixan, denpora lagun egin bihar dogu, denporari erakutsi eta beragandik ikasi, denporan hartu eta emon, emon ta hartu... Azken finian, herrialde "garatuetan" ez bezela gure arbasuen filosofiaz busti, denporian esklabutzatik libratzeko. Denporia "galtzeko" prest Oinatze? ●

Kaixo politta!! Denbora, nola pasatzen den denbora, konturatu orduko Pil-pileanen artikulua idaztea suertatu zaigu, eta berriz ere denbora gutxi daukagu artikulua idazteko.

Zuk ongi esan bezela, denboraren esklabu bihurtu gera, egutegiak eta ordulariak agintzen digu noiz egin gauzak eta ez gure gorputz edo gogoak.

Askotan denbora gelditzea gustatuko litzaidake, zer egin eta zer ez egin momentuan erabaki, gure arbasoek egingo luketen bezela, egingakoa eginda eta gelditzen dena hurrengo egunerako; denbora bizi eta ez denboraren menpe bizi.

Azken galderari erantzunez; nola egongo naiz denbora galtzeko prest!! Denbora daukagun altxor preziatuenetakoa da, nahiz eta administratzen ongi jakin ez. Denbora gozatzeko da, seme, lagun edo familiarekin, baina gozatzeko. Maitte ditugunen alboan disfrutatzeke, minutuz-minutu, segunduz-segundu, segundu bakoitzak bere xarma duelako.

Denbora badoa aurrera, ilargi ederra dago gaur gauez, eta hau idazteari utzi eta balkoira aterako naiz zigarro bat erretzearen denboraz disfrutatzeke. Ugaraxo eta errekarren soinua entzunaz gaurko egunaren azken minutuez gozatzeko.

Bueno maittia, ea hurrengo artikulua idazteko behar beste denbora hartzen dugun. Muxu pila bat zuretzat eta artikulua hau irakurtzen denbora pasa dutenentzat. ●

Izan daittezen zuri, baltz edo koloretakuak, izan daittezen!

Arrate Gisasola

Denbora gozatzeko da, seme, lagun edo familiarekin, baina gozatzeko

Oinatze Silbeti

Goguan hartzeko

Ardi galdua atzeman daiteke; aldi galdua ez Euskal atsotitza



GUTUNAK

Alkate jauna: jauntxokeriarik ez!!!

Maiatzaren 13ko Ez Ohizko Osoko Bilkuragure taldeak eguneko gai zerrendaren 5. puntuan Pleno Aretoa bertan behera utzi zuen. Ez da gure taldearen eguneroko jarrera, baina hartutako erabakiarekin, Alkateak gure taldearekiko duen jarrera salatu nahi izan genuen.

Bostagarren puntuan Udal Gobernu taldeak Euskal Preso Politikoen Egoerari buruzko Mozioa aurkeztu zuen eztabaida eta bozketarako.

Maiatzaren 11an goizeko 9:00etan gure taldeak Udaletxean sarrera eman zion mozio bati. Mozioak gure taldearen ikuspuntua azaltzen zuen gai honen inguruan. Gure asmoa asteazkenean izango zen Osoko Bilkuran Mozioa eztabaidatu eta bozkatzea zen.

Alkateak ordea, aurkeztutako mozioa ez zuela gai zerrendan barneratuko adierazi zigun.

Maiatzaren 13an Plenoari hasiera eman ondoren 5. puntuan berriz ere alkateari eskatu genion gure mozioa urgentziatzko mozio bezala onartua izan zedin. Berriz ere ukatu egin zigun, bigarren aldiz.

Izatez garena izateko

Izar gorri batek ilusioz bete gaitu. INICIATIVA INTERNACIONALISTA, estatu mailako indar ezkertiarrek eta independentistak biltzen dituen kandidatura berriak hain zuzen. Estatu Espainiarak zanpatuta dituen herri ezberdinetako jende honen autodeterminazioaren eta sozialismoaren alde lan egiten du, eta ezker abertzaleari, bozka ematen diegunei, beraien babes eskaini digute, Euskal Herriko beste kandidatura batzuk ez bezala.

Izatez ezkertiarrek gara, kapitalismoa gutxien daukanaren kontrako eraso bat delako, bakar batzuei ekartzen dizkielako onurak eta gehienori kalteak. Oraingo krisian bezala, bankuak eta multinazionalak sortu dutena, baina langileok ordaintzen ari garena.

Izatez abertzaleak gara, horregatik sinesten dugu herrien eskubideak ezin direla zanpatuak izan, herrien autodeterminazio eskubidean sinesten dugu.

Baina benetan izatez garena izatea nahi badugu, gutariko bakoitzak bizi dugun gatazka konpontze-

Herrian gai honen inguruan hainbat ekintza burutu dira azken aste hauetan eta gure taldearen jarrera azaltzea nahi izan genuen aurkeztutako mozioaren bitartez. Alkateak ala eta guztiz ere, gure taldearen mozioa ez onartzea erabaki zuen. Nongelditzen da udal gobernuak legealdi hasieran aldarrikatzen zuen herri partaidetza? Alkate jauna, azaldu zergaitik 567 Soralezetar ordezkaten dituen udal taldearen eskubideak ez dituzun errespetatzen. Hau al da Soralezarentzat aldarrikatzen duzun demokrazia? Benetan alkateak baita udal gobernuak azaldutako jarrera, onartezina iruditzen zaigu. Lerro hauekin alkateak daukan jarrera salatzea eta herritarrei jakinaraztea nahi izan dugu.

Gure taldeak dituen eskubideak defendatzen eta aldarrikatzen jarraituko ditugu, alkatearen jauntxokerien gaineratik. Alkate Jauna entzun argi eta ozenki : Jauntxokeria gehiagorik ez !!!

SORALUZETAKO EAJ/PNV UDAL TALDEA

ko beharrezkoa den elkarrizketaren alde borrokatu behar dugu, herriok autodeterminatzeko dugun eskubidearen eta eredu ekonomikoaren aldaketaren alde borrokatu behar dugu.

Estatuek Ezker Abertzalea desagertaraztea biltzen dute aspalditik, herri honen aldaketaren motorea izan ez dadin, baina INICIATIVA INTERNACIONALISTAK bakarrik ez gaudela erakusten digu. Egun hau historikoa da, gerra zibiletik egon ez den ezkertiarren batasuna gure eskuetan dago!

Beraz ezkertiar eta abertzaleak garenok badugu zer egin ekainaren 7an, hautestontziak izarrez bete, askatasunari eta sozialismoari gerturatuko gaituzten izar gorri, INICIATIVA INTERNACIONALISTA bozkatuz.

BITTOR TREBIÑO, AINHITZE ELIZBURU, ROSA ETXEBERRIA, ITZIAR EZENARRO, ALBERTO BERRAONDO, ENKO BERETXINAGA, TXARO LETE

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunik.

Pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04
e-maila: aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzio burua:** Leire Iturbe
Erredakzio batzordea: Egoitz Unamuno, Enara Agirre, Jon Basauri eta Aitor Madrid **Publizitatea:** Ane Larreategi
Logotipoa: Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Azala:** Pablo Galarraga
Diseinua eta maketazioa: Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop.
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563
Lege-gordailua: SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZETAKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Nerea Isasti

EUROPA, HAIN GERTU,
HAIN URRUTI

Igandean, Europar hauteskunderen parte hartzeko aukera daukagu. Baina zer dakigu Europar Batasunari buruz? Europako lurralde bakoitzari dagokion erabakien bi heren Europako Parlamentuan hartzen dira. Guztira 27 lurraldek osatzen dute Europar Batasuna eta espainiar Estatutik 26 alderdiri bozka emateko aukera dago. Hobe esanda, askoz gehiagori, zeren alderdi horietako bakoitzean beste alderdi pila bat dago. Baina horien atzetik, auzitegi espainiarrek primerako publizitatea eman diote Iniciativa Internacionalista alderdiari, eta doan gainera. Gehienetan bezala, bilatzen zuten efektuaren guztiz kontrakoa lortu dute. Benerako demokraziak irabazi du.

Bestalde, EA eta Aralar, Europa de los Pueblos-Verdes koalizioaren barne dihoaz eta PNV, Coalición Por Europa-ren barne. Ideologo batzuk abstentzioa eskatzen dute, "sistema kapitalistari jaten ez emateko". Izan ere, Europak, Batasuna behar du, beste superpotentzia mundialekin lehiatzeko, besterik ez.

Baina, euskaldunon bozka beharrezkoa da European, nahiz eta herri txiki bat izan, nahiz eta gure hizkuntzak Europako Parlamentuan tokirik ez izan.

EUSKALDUNOK, BOZKA DEZAGUN!

((ENTZUTEKUAK))

Ezoziko Jaixak biziberritzen

Aritz Alustiza Lizarraldeko 29 urte dit du eta "Muneta" baserrixan jaiotakua da. Duela urtebete inguru jeitsi zan herri-ira bizitzera baina Ezoziko auzoko jaixen antolatzailetako bat da aspalditik. Aurten be, egun bakarrek jaixa izango da baina ekitaldiz beteta.

Zenbatak osatzen doazue Jai Batzordia?

Bi laghunek dihardugu antolaketa lanetan baina laguntzaileak be badaukaguz. Gaur egun, domekan egitten da Ezoziko Jaixa. Zapatuan Erromerixa Eguna egingo da eta hau Euskal Jai Batzordiak antolatzen dau.

Azkenengo urtietan asko aldatu dira Ezoziko Jaixak?

Hasiera baten barixakuan, zapatuan eta domekan egitten ziran Ezoziko jaixak eta egitaraua be ezberdina zan. Gaur egun, domekan bakarrik egitten da. Azkenengo urtietan eguraldixak ez dosku asko lagundu eta kontzertuekin be ez dogu asmatu.

Zein da aurtengo egitaraua?

Eguerdiko 12:00xetan Mendotz eta Bizkai trikitilariiek alaituta salda eta txorizua banatuko da. 12:30etan nahi dabenak mezetara juateko aukera izango dau eta ostian he-

rri-kirolakizango dira. 14:30etan Armendi jatetxian bazkalduko dogu eta arratsaldeko 18:00etan umiendako zezentxuak eta ponixak egongo dira. Amaitzeko erromerixa izango da trikitilari-ekin eta jarraixan umiendako erregaluak banatuko dira.

Zapatuan Erromerixa Eguna egingo da. Horrek lagundu dotsa Ezoziko Jaixeri?

Bai, ikaragarri! Ezoziko plazia bete-beteta egoten da eta horrek bizitasun haundixa emoten dotsa auzoko jaixei. Juan zan urtian be jente asko ibili zan, bai zapatuan eta bai domekan.

Animatu herritarrak parte hartzera...

Zapatuko bixamuna kentzeko onena domekan be dantzan egittia da! Gainera, saldia eta txorizua jatiak bixamuna kentzen laguntzen dau!

Zapatuko bixamuna kentzeko onena domekan be dantzan egittia da



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

**Errekalde 21
20590 SORALUZE**

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61


**H.NOS. BENITO
ANAIAK**



Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

ONA: medikuarekin txanda hartzeko balio duen txartel elektronikoa



ONA txartela

Esusko Jaurlaritzak abian jarri du Osasun Txartel Indibiduala ordezkatzeko duen dokumentua. ONA, Osasun Nortasun Agiriak, lehengoak baino erabilgarritasun handiagoa izango du. Besteak beste, sendagilearekin hitzordua internet bidez adostu, sendagile aldaketa egin, errenta aitortpena egin zein gidabaimeneko puntuak kontsultatzeko modua izango da txartel honekin. Berau eskatzeko KZgunera jo behar da OTI-a (*Osasun Txartel Indibiduala*) eta NANarekin, ekainean astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:00era eta uztailen 16:00etatik 20:00etara. ●

22 etxebizitza eta 57 garaje Candal eta Treviño



Candal torlojutegia eta Treviño enpresa zeuden lekuan 22 etxebizitza eta 57 garaje eraikiko dira. Promotorea Soraberri Promotioak S.L. Da eta dena ondo badoa 2010 urte amaierarako eraikitzea aurreikusi da.

Herriko eliza Lamp Lighting Solutions Sarietan finalista

Barruko zein kanpoko espazioetako iluminazioa saritzen duen lehiaketa honetan finalista da Santa Maria de la Real eliza. Barnealdeko iluminazioen kategorian hain zuzen. Berarekin batera, 159 iluminazio proiektu daude. Finala, Bartzelonan izango da, ekainaren 18an.

Lan eskaintza Udaleko administrazio zerbitzuan

Udala langile baten beharrea dago administrazio sailean sei hilabetez eta lanaldi osoz lan egiteko. Pertsona honek langabetua behar du eta ondorengo baldintzak bete behar ditu: INEMen izena emanda egotea, Lanbide Heziketa 2. mailako administrazio adarrean tituluduna edo beste titulu bateragarri bat izatea eta EGA ziurtagiria edo baliokidea izatea. Ekainaren 19ra arte jasoko dira C.V.-ak Udalean.

12. urteurren arrakastatsua

Hilaren 22an Motoclub Plaentxiren 12. urteurrena izan zen. Bilbo, Arrasate, Bergara, Gasteiz eta inguruko motorzale asko batu ziren urteurrena ospatzeko. Horretarako, motorrean inguruko herriak zeharkatu zituzten eta bazkarian, ehunetik gora bildu ziren.





SAN ANDRES

ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46



MENDIZABAL

okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

EUROPAKO HAUTESKUNDEAK

AURREIKUSPENAK ALDERDIZ-ALDERDI



Aurreko hauteskundeetako argazkia

Monika Muro

Ezker Abertzalea

Ezker Abertzaleak Europako hauteskundeetara ezin du aurkeztu eta beraz, guk bozka Iniziatiba Internazionalistari emateko gonbitea luzatu nahi diegu herritarrei. Espainian aldaketa sozialaren eta herrien autodeterminazioaren aldeko alternatiba bat jaio da, Europa desberdin baten alde egiten duena eta herri honen ahotsa Europan egoteko modua ahalbidetzen duena.

Iker Aldazabal

EAJ-PNV

Bozkatzera joateko deia luzatu nahi diegu herritarrei. Europar Batasunean onartzen diren direktiben %80ak eragin zuzena baitu estatu kide bakoitzeko ordenamendu juridikoan. Gure alderdia koalizioan doa Europako hauteskundeetara eta asmo nagusia, ditugun bi parlamentarioak mantentzea izango da. Hori bai, parte-hartzeak eragin handia izango du, hobe esanda, absentsioak.

Soledad del Bosque

PSE-EE

Gure ustez hauteskunde hauetan abstentzioa handia izango da. Hiritarrak ez daude kontzientziatuta. Nahiz eta bozkatzea komeni den, jendeak Europa urrun sentitzen du. Bestalde, gure alderdiak emaitza onak izango dituela uste dugu, hauteskunde autonomikoetan eta estataletan izandako emaitzen antzekoak. Gure ustez, abstentzioak denori maila berean eragingo digu.

Roke Akizu – EA

Europan parlamentari bat edo bilortzeko aukera dugula uste dugu. Hori bai, esaten da %45eko abstentzioa egongo dela. Nire ustez jendea ez zaio behar bezala azaltzen Europako hauteskundeak zer garrantzia duten. Ez da eztabaidatzen honen inguruan eta ez da ikusten zer irabazi edo gal daitkeen hauteskunde hauetan, agian, gure buruak larregi begiratzen diogulako.

Maria Garmendia – PP

Guk bi ideia nagusi helarazi nahi dizkiegu herritarrei. Hasteko nabarmendu hauteskunde hauek duten garrantzia handia dela. Izan ere, Europar Batasunean hartzen diren erabakien, lege eta normatiben %80k lotura estua dute bertako kideekin. Horregatik, bozkarako gonbitea egin nahi diegu herritar guztiei. Bestetik, argi daukagu hauteskunde hauetan gure alderdiak irabazi egingo duela, garaipena handia izango dela.

Organu emale kanpaina plaza zaharrean

Ekainaren 13an, goizez eta arratsaldean, ALCER-Gipuzkoa, Giltzurruneko Gaixoen Elkarteak, organu emale kanpaina egingo du herriko plaza zaharrean. 30 urte martxan daratzen elkarte honek boluntarioak bilatuko ditu.

1962an jaiotako bazkaria

Aipatu urtean jaiotakoek bazkaria egingo dute Txurrukan ekainaren 13an. Joan nahi duenak bihar zapatua izango du izena emateko azken eguna. Jatetxean edo 943.75.15.81 telefonoan. Bazkari egunean 14:00etan Txoko tabernan elkartuko dira.

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

**JABIER ALBERDI
HARATEGIA**
ERRABAL KALEA 24
SORALUZE
T. 943 75 19 32

Euskal Okela



200. ALE

irakurleondako

Arianne Unamuno

“**N**ekazari batek artoa landatu zuen bere soroan eta uzta, artaleak, txoriei banatu zizkien elika zitezen.”

Pil-pileanek 200.alea du hau. 200 ale, denak desberdinak eta horien ehundaka kopia heldu dira herrian bizi garen soraluzetarron eta urrun daudenen etxeetara. **EUSKARAZ, HERRIKO KONTUEN BERRI** eman eta berriok etxez etxe zabaltzen ditu aldizkariak. Beti edukiak aldatuz, diseinua berrituz, atal berriak txertatuz...

“Nekazariak gozatu egiten zuen txoriak artaleak jaten ikusita, baina kezka bat zeukan: zergatik ez zuten txori batzuek artalerik jaten? Erakarri egin behar zituen haiek ere.”

Elkarteko hedabide sailak aspalditik du erronka handi bat: **SORALUZETARREN LEHENENGO INFORMAZIO ITURRIA** izatea. Erdarazko prentsa irakurtzen dutenak erakarri nahi ditugu, haien intereseko informazioa ere eman, eduki askotarikoagoa eta irekiagoa eskaini.

“Nekazariak bazekien artale hobeak lor zitzaie. Urteak joan ahala, barietate gehiago erein zituen eta alerik onenak gorde hazitarako, baina oraindik ez zegoen konforme.”

Garatzen jarraitu eta aro zibernetikora egokitzeko sortu genuen Plaentzia.com, berehalakotasun eta parte hartze zabalagoa lortzeko. Orain, teknologia berriek eskaintzen dituzten ba-

liabideak webgunean txertatzen jarraitu behar dugu, kalitate hobeko eta eskaintza zabalagoa zerbitzua eman ahal izateko. **GAUR INTERNET DA LEHENTASUNA.**

“Nekazariak bazituen inguruantxoriak elikatzen zituzten beste nekazari batzuk. Askok pentsatzen jardun ostean, zera bururatu zitzaion: denek jakintza batuz gero, uzta hobe eta oparagoa lortuko lukeela.”

Zer dakigu gure bailarako gainontzeko herrietan gertatzen denaz? Debabarreneko herritarrok elkarren berri izan dezagun, beharrezkoa izango da **BAILARAKO EUSKARAZKO PRENTSA BATERATUA** sortzea. Hor dituzue esaterako, Debagoieneko “Goienkaria” edo beste zenbait bailaratan daukaten “Hitza” egunkaria. Horrelako zerbait behar dugu guk ere, indarrak batu eta bailara osoan euskarazko zerbitzua eskaintzeko.

Denon ideiak, proiektuak, ilusioak, hausnaraketak eta albiste onak nagusi izango diren prentsa egin nahi dugu. Gure aleak hobetuz jarraituko dugu, mamitsuagoak, elikagarriagoak, koloret-suagoak, ederragoak eta interesgarriagoak izan daitezten.

Zuendako, txoriendako, irakurleondako!

Zulotik
begiraBizirik hiltzen... edo
halako zerbait

...**B**i metroko basajaun iletsuen familia bat zen!!! Orduan, hortzak indarrez estutu zituen, beraien janari bihurtzeko beldurrez... Une batez isiltasuna izan zen nagusi. Haietako batek gosea zuela adierazi zuen keinuak eginez. Lidek ondo asko ulertu zuen esanahia. Joan egin ziren, ziurrenik ehizatzaera. Benetan ezohizko izakiak iruditu zitzaizkion, oso bestelakoak. Haien arteko hizkuntza keinuen bitartekoa zen, ez hitzik, ez soinurik... Itsuak eta gorrak zirela ondorioztatu zuen gaztetxoak, baina ez zegoen guztiz konbentziturik. Irudimenak ote?

Bakarrik zegoen berriz ere, basajaunak joanda ziren. Haien utzitako arrastoei edo aztarnei jarraituz bertatik nolabait irten nahi zuen. Behin eta berriro saiatu zen, baina alferrik. Oso zaila zen irtenbidea aurkitzea, ezinezkoa ez bazen. Etsiturik, lur jota, negarrez hasi zen, garrasika laguntza eskatuz. Inork ez zion entzun, nola bada?

Aurpegi txarra zuen Lidek, jatea, edatea, airea hartzea behar zuen. Geroz eta bero gehiago sentitzen zuen buruan, odol guztia bertara joaten baitzitzaien. Euliak bere inguruan biraka eta biraka zebiltzan. Larruazalak hazkura ematen zion euliek egindako ziztaden eraginez.

Bueltatu ziren berriz ere zaku handi bat eskuan zutelarik. Eguneko janaria zirudien. Lidek ikatzeko tontorraren atzean jarraitzen zuen, mutu. Halako batean, zakutik basurde bat atera zuten. Labana hartu eta hasieran osorik zegoen animalia, mila zatitan moztu zuten, odol guztia egurrezko mahaitik behera erortzen zelarik. Neskak gertakizun hura ikusi ostean, bera ondorengo izango zela pentsatu zuen. Urdu-ritasunak ez zion uzten ondo arnasten

“Lide zegoen tokitik metro batera, zurezko objektu batzuk zeuden, eta haien artean, hilkutxa bat aurkitzen zen”

eta itotzen egongo balitz bezalako mugimenduak egiten hasi zen. Mihia astintzen hasi zen, ezin zuen kontrolatu...

Lide zegoen tokitik metro batera, zurezko objektu batzuk zeuden, eta haien artean, hilkutxa bat aurkitzen zen. Bertan, diseekatutako animaliak eta jakiak gordetzen zituzten.

Geroago, hobeto arnastu ahal izan zuen, baina bizirik hiltzen zegoela zirudien. Burua lehertzeaz zeukan, eskuak izoztuta, mina, egarria, gosea... zer ez? Lide beherantz begira zegoela, basajaun batek eskua luzatu eta ileetatik hartu zuen, ondoren iltze batean eseki eta buruz behera jartzeko. Orduan, bizkarra jotzen hasi zitzaion gaztetxoak, ero baten pare... Hark ezin zion ez entzun, ez ikusi... Gau guztia pasatu zuen buruz behera, zintzililik. Malkoak, negar malkoak erortzen zitzaizkion etengabe... Hurrengo egunean, basajauna Liderengana gerturatu eta diseekatutako anima-

“gorputzetik zizareak, intsektuak, armiarmak... zituen jasanezinezko kilimak eraginez. Lidek burbuilak, bitsa... atera zuen ahotik”

Beldurrezko ipuina
(Bigarren partea)
Miren Goenaga

liaz beterik zegoen hilkutxan sartu zuen, bera ere haietakoren bat balitz bezala. Segundu bateko gauza izan zen. Neskatilak ezin izan zuen bere burua defenditu, ez zegoen denborarik.

Hilkutxaren barruan zegoela, gorputzean kilimak sentitu zituen, ahotik geroz eta gertuago. Ez zuen ezer, ezer ikusten, baina mugitzeko moduagatik intsektu eta zizare batzuk izango zirela pentsatu zuen. Eskuak erabiliz, gainetik kendu nahi zituen... Eskuineko besoarekin zerbit latza ukitu zuela iruditu zitzaion. Bigarrenaldiz ikutzean, listuarekin nahastutako zerbaitekin topatu zen. Makina bat astakeria pasatu zitzaizkion burutik, benetan kezkatuak zegoen, ero baten sintomak agian?

Gorputza beste aldera begira jarri zuen, estutzeko. Belarrian zerbaitek edo norbaitek miatzatu zion eta ondoren, sekulako haginkada egin zion masailan... Pozoia ahora isuri eta neska- ren lepotik hainbat buelta eman zituen itotzeko, akabatzeko asmoz. Bi metro eta erdiko suge bat zen!!! Oraingoan bai ezin zuela ihesik egin... Batetik, sugeak indarrez estutzen zion inolako mugimendurik egiten utzi gabe. Bestalde, gorputzetik zizareak, intsektuak, armiarmak... zituen jasanezinezko kilimak eraginez. Lidek burbuilak, bitsa... atera zuen ahotik. Begiak zabal-zabalik zituen, lekutik atera nahi izango balute bezala. Etengabeko sufrimenduaren ondorioz eta azkenengo bost taupada mantsoren ostean, hiltzeaz zegoen... LIDEEE! Gosaltza! Amaren ahotza zen. Lidek begiak ireki zituen, izerdipatsetan. Ez zegoen basajaunen leizezuloan, bere gelan baizik. Arnasa hartu zuen astiro, bere gelako gauza kuttunei eta maiteei begira, harik eta irribarre txiki bat atera zitzaion arte. ●

“Udalak lokalen alokairua sustatu beharko luke”

Azkenaldian aukera berri bat ari da nagusitzen herriko gazteen artean. Gazte-lokalak dira, lagun artean egoteko leku alternatiboak. Dagoeneko dozena erditik gora lokal daude. Herriko aisialdiko eskaintzaren hutsunea betetzeko aukera dela diote elkarrizketatu ditugun gazteek.

GABOLATZ KALEKO LOKALA

Lehen jantzi denda bat zena, apirila bukaeratik hamalau laguneko neska-mutil koadrilaren bilgunea da. Batxilergoko ikasleak dira selektibitatea aurrez-aurre dutenak. Kanean orduak pasatzen zituzten: *“aspertu egiten ginen, neguan hotza, tabernetan dirua gastatu behar eta lokal bat bilatzea erabaki genuen”*.

Pozik daude, ostantzean, *“kanean, egonean*

“Erraza da hemen <<apalankatzea>> eta planak egiten saiatzen gara”

eta jarlekuren batean eserita” egongo liratekeelako. Behar duten guztia dute bertan, bideojokoak, telebista, kartak eta mahai-jolas ugari.

Txandakako antolaketa

Hilean 20 euro ordaintzen ditu kide bakoitzak eta diru-kutxa bat dute gastuei aurre egiteko. Astean behin, domekero, garbiketa eguna izaten da.

Gabolatz kaleko lokaleko gazteak sofan jarrita.





Mendi taldearen lehengo lokala txukundu dute gazteek.



Zure Etxea taberna zena lokal bihurtuta.

Lokaleko material guztia bigarren eskukoa da: *“Jendeak eserlekuak eskaini izan dizkigu eta zakarretatik ere errekuaperatu dugu baten bat, telebista esaterako. Oraingoz, erosketa bakarria telebistaren mandoa izan da”*. Herrian ez omen dute zer egin askorik euren adinoko gazteek: *“Gazte-txokorako nagusiegiak gara eta gaztetxeko giroa ez da gurea. Udalak lokalen alokairua sustatu beharko luke eta araudi bat eratu. Gu momentuan kontratu barik gaude”*.

MENDI-TALDEAREN LEHENGO LOKALA

Adin berekoak dira urte hasieratik Gilako zubi ondoan lokala hartu duten hamaika lagunak ere (*adopzioan hartutako dortokarekin batera, hamabi*). Herriko beste aukerak ez dira euren gustukoak: *“Gazteendako gauza gehiago egin beharko lirateke. Gaztetxera gu ez gara hurbiltzen ez bada kontzertu bat ikustera-edo eta gainerako orduetarako leku bat behar genuen”*.

Zaharberitutako lokala

Gazteek onartzen dute denbora asko egiten dutela lokalean: *“juergak lokalean hasi eta gero kalera irteten gara. Egia esan, erraza da hemen “apalankatzea”, baina saiatzen gara lokaletik kanpo planak egiten, mendia, futbola...”*. Sartu zirenean egoera oso desberdina zen: *“Zikinkeria baino ez zegoen. Garbitu eta hormak pintatu genituen. Gero sofak, telebista, zaborretatik hartutako labe txiki bat eta pixkanaka lokal baten itxura hartzen joan*

zen”. Euren fabore, argiarena da ordaintzen duten faktura bakarria, lokala ezagun batek alokatzen die eta.

ERREBAL KALEKO “ZURE-ETXEA”

Errebal kalean dago joera berri honen beste adibide bat. *“Zure-Etxea”* taberna zena lokal bihurtuta dago eta bertan, 18tik 24 urtera bitarteko hogeita bi laguneko neska-mutil koadrila egoten da. Urtebete daramate bertan, bakoitzak 30 euro inguru ordaintzen ditu: *“Hasieran diru gehiago ipintzen genuen jan-edanak erosteko. Baina dirua galtzen genuen eta ordutik jaietan bakarrik egiten dugu erosketa handia. Osterantzean, alokairua eta gastuak ordaintzeko dirua baino ez dugu ipintzen”*.


“Neguan asko eskertzen da lokaleko berotasuna”

Eguraldiak agintzen du

Zenbaitek gizartetik isola-tzeko arriskua ikusten du lokal haue-tan. Hori uste dutenen kontra, *“Zure-Etxea”*-ko lagunak ez dute uste ehuneko ehunean gertatzen denik. Eguraldiaren arabera, hondartzara edo mendira osteratxo bat egiten dute edo *“txarra denean, hemen geratzen gara, izan ere, neguan lokaleko berotasuna asko esker-tzen da. Bestalde, asteburuetan parranda egitea izaten da aukerarik onena”* diote.

Lokal gehien antzera, aisialdirako gunea da lokala: *“Herrian eskaintza gutxi dago bestela. Adibidez, eskertuko genuke tabernetan billar edo mahai-futbol bat egotea. Oso gustura gaude hemen eta epe luzean jarraitzea espero dugu”*. ●

Uga ra xo



Uga ra xo Al bis tea




Plaentxi ikastetxeko 2. mailakoek "Landareak" eta "Paisaiak" gaiekin lotuta, ikastetxetik gertu dagoen leku batera irtenaldi bat antolatu genuen. Ikasleek, liburuan ikasitakoa, naturan aztertu zuten: mendi aldeko paisaiaren elementu batzuk ikusi zituzten (basoak, ibaia, belardiak, mendiak...) baita primeran margotu ere. Zuek ikusteko eskolako sarreran jarriko ditugu.

MARGOLARI BIKAINAK DITUGU!!!



txiki



inkesta

Ze musika entzuten dozu?

Zegaittik?

Jon Urdangarin, 8 urte



Nik musika mordua entzuten dot! Oso gustukua dakaten talde bat La Orejade Van Gogh da, baina gehixen Guazen-en musikia gustatzen jata, pelikulia be ikusitta dakat eta kantau egitten dot.

Noelia Cobos, 8 urte



Musika askorik ez dot entzuten, neri hori baino gehixago dantzatzia gustatzen jata. Guazen taldiaren kantuak dakidaz eta pelikulia ipinitta kanta eta dantza pillia egitten dot gaisetik


Neri musikia gustatzen jata baina ez dakitt taldien izenik. Nahixago dot dantzatzia, euskal dantzak egitten dittut eta trikitixa eta euskal musikia gustatzen jataz.

Ihintza Garate, 7 urte



Gurasuek entzuten daben musika bardina entzuten dot nik. Baina hobeto pasatzen dot beste gauza batzuk egitten, dantzan, bizikletan edo patinetan ibiltzen! Astian birritan judua egittera juaten naiz baitta.

Markel Ariznabarreta, 7 urte



TXISTEA ETA ASMAKIZUNA



TXISTEA

Gizon bat txori dendara sartu zen eta loro elebiduna eskatu zuen.

Dendariak hanka bakoitzean soka bana zuen bat erakutsi zion.

- Ezkerreko sokatik tira eginez gero, euskaraz hitz egingo dizu –azaldu zion saltzaileak- eta eskuinekotik tira eginez gero, katalanez.
- Aizu, eta bietatik batera tira egiten badiot? –galdetu zion bezeroak
- Zozoa halakoa! Lurrera joango naiz mokoz aurrera!– erantzun zion loroak.

ASMAKIZUNA

Lau katuk lau sagu ehizatzen dituzte lau minututan. Zenbat denbora beharko dute ehun katuk ehun sagu harrapatzeko?



ZER TRIZTEN DOTSAZU?

Ekainaren 7an Europako hauteskundeak egingo dira. Itxuraz Europa nahiko urrun geratzen bada ere, soraluzetarrek bozkatzeko asmoa dute.

Zer espero dozu Europaz, botua emongo dozu?

AGUSTIN MORO
Elektrizista



Gauza gutxi espero dotnik Europaz, gero eta gutxiago gainera! Hasierako ametsak, proposamenak, eta aurkeztu zittuzten asmuak desagertu egin dira daganeko. Dana dala, ekainan 7xan juango naiz botua emotera.

MIKEL APARIZIO
Zerbitzarixa



Gauregungo egoeria ikusitta, ez dot uste Europatik ezer berririk helduko danik. Bi urteren buruan, gauzak daren moduan jarraituko dabela pentsatzen dot eta ez dot uste Europak ezer aldatuko dabenik. Ni ez noia botua emotera, ez jata gustatzen eta!

NAIARA ELGETA
Dendarixa



Europa? Neri hori urrin geratzen jata! Nahiz eta bozkatzera juango naizen, ez dot uste ezer aldatuko danik, ez dot gauza haundirik espero ez, hauteskunde hauetaz!

KRISTINA MORALES
Postaria



Ez da ezer aldatuko eta ez dot ezer berezirik espero hauteskunde hauetaz. Momentu batzuetan europarra sentitzen naiz baina puntu bateraino, ez da egunero pentsatzen doten gauza bat. Bozkatzera baina, juango naiz.

KOMIKIXA



Disainua eta Formena

Polígono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaieta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434
Jon Azkiorbeberria Txurruka
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

Hodei Iruretagoiena Soraluzeko "Plazatik Gaztetxera"-ko irabazle



Pasa den ostiralean Plazatik Gaztetxera bertso txapelketaren lehen kanporaketa jokatu zen gaztetxean. Afaltzen 30 lagun inguru batu ziren eta zenbait gehiago izan ziren saioa ikustera hurbildu zirenak. Hodei Iruretagoiena zarauztarra izan zen garailea eta jendearen saria Eneko Beretxinaga herritarrak jaso zuen, puntuaketa 5. gelditu zen.

Soraluzeko saioaren sailkapena:

- 2.-Egoitz Alkorta
- 3.-Maialen Belarde
- 4.-Peru Vidal
- 5.-Eneko Beretxinaga
- 6.-Mikel Olaizola

Barixaku honetan Deban jokatuko da txapelketa eta finala Mutrikuko Gaztetxian izango da, hilaren 12an.

Antzerkia eta kontzertuak gaztetxean

Zapatuhonetan, hilak 6, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Gaztetxean. Durangaldeko desarrollismoaren eraginak aurkeztuko dituzte lehenengo arratsaldeko 19:00etan. 22:00etan berriz, "El teatro del miedo" antzerkia ikusteko aukera egongo da eta ondoren kontzertuak izango dira: Reggio Funeratus, The Black Gramola Conspiracy, Kaosaren Erasoak.

Erromerixa Eguna datorren zapatuan



Aurten bigarren Erromeria Eguna ospatuko da Ezozin ekainaren 13an. Goizeko 11:00etan salda eta txorizoa banatuko dira Plaza Barrixan eta ondoren txistulari eta trikitilariekin kalejiran Ezozira igoko dira. Ordu biak bitartean, erromeria egongo da Jon Ostolaza eta Rakel Pujana trikitilarien eskutik eta tartean, Iparraldeko Muttikoak dantzatuko dira. Arratsaldean, Jon Ostolaza eta Rakel Pujanarekin ilundu arteko erromeria egingo da, Larrain

dantza herrikoaia eta dantzarien ikuskizuna tarteko. Amaitzeko, Lapurdiko Xutik taldeak dantzaldia eskainiko du.

Bazkaria etxetik

Bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du. Dirurik ordaindu behar ez bada ere, Iratxo goxodendan eman behar da izena lekua erreserbatzeko. Aurrez erreserba egin dutenek izango dute lehentasuna. Antolatzaileek baserritarrez janzteko gonbitea ere luzatu dute.

Joan zen urtean ehundaka lagunek parte hartu zuten erromerixa egunean.



24 margolari Aire Libreko margo lehiaketan

Bi kategoriatan banatu ziren sariak. Haurren kategorian, lehenengoa Afrika Fernandez kantabriarra izan zen. Haren atzetik Silvia Loscos eta Iosu Benito herritarrak geratu ziren. Helduen kategorian, irabazlea, Angel Civera zaragozatarra eta haren atzetik Javier Igoa Iesakarra eta Jose Ramón Guerra gorlizdarra.

TXURRUKA
JATETXEA

www.txurruka.com
943 75 15 81

Kontulan
Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1. ezk.
Tifonua: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Zapatuan Donostiara erregionalarekin



Azken partiduan Kostkasi 2-0 irabazi ostean, bihar Donostian itzulerako partidua jokatu du Sorako erregional taldeak. Bi goleko errentari eutsiz gero, mailaz igotzeko aukera izango du. Horrela, taldea animatzeko autobus bat irtengo da bihar arratsaldeko 15:00etan estaziotik. Neurketa 17:00etan izango da. Mailaz igotzen badira, kirolariei harrera egingo zaie herriko udaletxean. ●

Gimnasia erritmikoaren estreinaldi paregabea



Eibarko, Urretxuko, Markinako eta Mutrikuko 150 gimnasta batu ziren Maiatzen 24an kiroldegian egin zen erakustaldian. Tartean Soraluzeko gimnastak ere bai, aspaldiko partez. Hain zuzen, aurten eskola kirolean jardun duten hamabost gaztetxoek osatu dute taldea. Eskola kirola amaitu den arren, gimnasia erritmikoak ekainaren 28ra bitartean jarraituko du eskolak ematen. ●

EMAITZAK

FUTBOLA

Sora (Erreg.M.) – Kostkas ... 2-0

PELOTA

Gonzalez – Laskurain22

Xala – Zubieta13

AGENDA

FUTBITOA

Barixakua 5, 19:00etan hasita, kiroldegian

Hola dok – Apple River
Gamusinos – EGS
Artifices – Fronton Team

Zapatua 6, 18:00etan hasita, kiroldegian

Kastakuak – Gaztetxe
Gare Izenbarik – Euskolabel
Bandera Trapo – Torpedos

FUTBOLA

Zapatua 6, 17:00etan, Donostiako Matigoxotegin

Kostkas – Sora (Erreg.M.)

PELOTA

Domeka 7, 17:00etan, Donostiako Atano III. Pilotalekuan

Berasaluze VIII – Mendizabal II
Gonzalez – Laskurain

ARRANO
taberna
etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua
etxera

ELIZPE Hertz Klinika
GURE ZERBITZUAK
Ortodontzia ikustezina
Inplanteak
✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA
ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)
Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67

GAZTELUPE
taberna
tel: 943 75 20 81

PLACENCIA
KONTSUMO KOOPERATIBA
Esku eskura! Telf: 943 75 13 45



ZORION AGURRAK



Nagore Caballero Mendizabal
Maiatzaren 30ean, bi urte!
Egun zoragarri bat igaro
dezazula! Maite zaituen familia
guztiaren partez,
batez ere Jonen partez!



Garazi Aizpurua
Ekainaren 12an 6urte!
Zorionak eta muxu haundiak
etxekuen partez sorgintxo!



Lara Ballesteros
Zorionak 11 urte betetzen
dituzulako!
Muxu bat etxekuen partez!



Nerea San Jose
Ekainaren 7an 11 urte!
Zorionak Boliatik eta
muxu haundi bat!



Esti Azkona
Maiatzaren 26an
urtiak betetzen dituzulako!
Zertxobait berandu bada ere,
ZORIONAK TITXU!
Etxekuen partez.



Zorionak Hugo!
Segi horren jatorra
izaten! Ama, Enrique
eta Beñaten partez!



Happy birthay Edurne!
12 urte egin behar
dituzulako, egun ona pasa!
Familiakoen eta bereziki,
Unai, ata amaren partez!



Zorionak Joxe Mari!!
Zenbat urte epaile lanetan?
Unben arbitratuko dozun parti-
duan zorterik onena opa dotsugu.
Epaile ona eta pertsona hobia
zara. Egoitz eta Arianne partez.



Zorionak Ane!!
Ekainaren 2an zure urtiak
izan diralako!
Segi fin-fin Pil-pilean eta
etxekoan partez!!
Muxuak!

OHARRA

Klase partikularrak ematen dira DBHko 3. mailarainoko ikasleentzat.
(Maiatzean, ekainean, uztailean eta abuztuan).
Telefono zenbakia: 677 70 10 05 Oihane

jaiotakoak

IARITZ REGLERA HERAS
EIDER GALLASTEGI BLANCO
AYA BERGHOUT KHALIS



hildakoak

FELICIANA RODRIGEZ MADRUGA



LEHTIAKETA

▶ **Plazentziatar ezagunak**

Zein ageri da argazki honetan?




▶ **Saria:**
Gogortuz fisioterapia zentruan saio bat.

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

▶ **Irabazlia:**
Izaskun Oregi

▶ **Aurreko aleko erantzuna:**
Txandrua...

Herriko bide-lapurra zan. Kondairak dinuan mo-
duan, mendixan borda baten bizi zan eta handik
pentsatzen zittuan bere ekintzak. Atxolin inguruan
zekan bere txabolía, "Azkoin" dolmenan onduan.



ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Antonio Fulgencio

LAGUN KUADRILA PLAZA ZAHARREAN

1960. urte inguruko Gabon garaixan etaratako argazkixa da. Hamaika laguneko kuadrila ageri da Plaza Zaharrian. Txikiak baserritarrez jantzita, seguruenik kantuan eta eskean ibili eta gero. Honek dira bertan ageri diran izenak: Juan Antonia Urizar, Antonio Fulgencio, Paco Rios, Celso Azkona, Jose Inacio Olano, Pachi Jimenez, Juanito Jimenez eta Aitor Amor. ●



DORLETA BEGIL

HIRUGARREN URTEURRENA

Hiru urte dira joan zinela, baina egunero zaude gure oroimenean.



Sorailuzeko
Euskal Jai
Batzordea



ERROMERIXA EGUNA

Ekainaren 13an Ezozin



eskerrik asko !!!

Haurren Euskal Jai egunean
lagundu zeniguten talde eta
norbanako guztioi.

Zuengatik izan da posible
hain jai ederra antolatzea.

Euskal Jai Batzordea.



Sorailuzeko
Euskal Jai
Batzordea



Ekainaren letik 12ra
Del 1 al 12 de Junio

ELGOIBARKO INSTITUTUA
MEKA GLHBI

AURRE
MATRIKULA

PREMATRICULA



IES Elgoibar-Arreturre BHI
IEFPS Meko GLHBI
Telf.: 943 74 80 19 • Faxa: 943 74 82 30
E-mail: bulagor@elgoibarbhi.net
Web orria: www.elgoibarbhi.net



Zure
txanda
da!



praktikan

praktikak
atzerrian

Zure momentua da.
Presta zaitetz!
**ARMERIA
ESKOLAN**



- FABRIKAZIO
MEKANIKOA
- MANTENIMENDUA
- ELEKTRIZITATEA
- ELEKTRONIKA
- AUTOMATISMOAK
- TELEKOMUNIKABIDEAK-
INFORMATIKA



Isasi, 36 - 20600 Eibar
Tfno. 943 20 32 44

e-mail: eibar@armeriaeskola.com

www.armeriaeskola.com